

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25789 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Soziologia

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaiak ikasleari jarduera fisikoek eta kirolak gaur egungo gizartean dituzten egoera, eginkizun eta funtzioak ezagutu eta ulertu arazten dizkio; jarduera fisikoa eta kirolaren fenomenoak ulertzen laguntzen duten soziologiako ikaste arlo nagusien azterketaren bitartez.

Harreman zuzena dauka Giza Motrizitatearen portaera eta gizarte oinarriak moduluarekin: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Historia irakasgaiarekin eta Kudeaketa eta Aisia Jarduera Fisikoetan eta Kirol Jardueretan moduluarekin: Estadistika eta Jarduera Fisikoaren eta kirolaren Ikerketa Oinarriak eta Kudeaketa eta Jolasa Jarduera Fisikoetan eta Kirol Jardueretan irakasgaiekin.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Moduloaren gaitasunak:

Modulua: M01 – Giza motrizitatearen portaera eta gizarte oinarriak

M01CM01 – Jarduera fisikoan eta kirolean, eta horien praktikan, eragina duten gizarte eta kultura faktoreak ezagutzea eta ulertzea.

Irakasgaiaren Gaitasunak:

- 1.-Soziologian erabiltzen diren oinarrizko kontzeptuak ulertu eta erabiltzea, jarduera fisikoan eta kirolean era egoki batean aplikatzeko.
- 2.- Soziologiaren ezagutzak ahalbidetzen duen perspektibatik, jarduera fisikoa eta kirolaren azterketa testuinguru teoriko batean kokatzea jarduera hauen gizarte dimentsioan sakontzeko.
- 3.- Biztanlegoaren kirol ohiturak ezagutu eta ulertzea.
4. Jarduera fisikoa eta kirol eremuan ikerketa soziologiko bat egiteko behar den oinarrizko formakuntza zientifikoa jasotzea.

Zeharkako gaitasunak:

G017 Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko literatura zientifikoa ulertzea, bertako hizkuntzetan eta zientziaren eta teknologiaren esparruan erabiltzen diren beste hizkuntza batzuetan.

G019 Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea.

Ikastearen emaitzak:

Ikaslea jarduera fisikoak eta kirola baldintzatzen dituzten gizarte eragileak identifikatu eta aztertzekeko gai izango da. Era berean, eragile horien garrantzia bereiztekeko gai izango da gaur egungo gizartearen aisia esparruan. Hori guztia diziplinean eragina duten ikuskera teoriko ezberdinetatik.

Ikaslea eragile sozialek nola baldintzatzen dituzten jarduera fisikoak eta kirola ahoz eta idatziz azaltzeko gai izango da, lanak egiten, ahozko aurkezpenak egiten eta azalpen, argudio galderei erantzuten. Lan, aurkezpen eta erantzun horiek guztiak informazio egokian oinarritu behar dira, zehaztasun maila egokia izan behar dute, kontzeptu-argitasuna, egituraketa, argudiatzeko eta sistesiak egiteko gaitasuna demostratu behar dute.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Edukiak:

1.Gai multzoa.Sociologiaren eta Kirol soziologiaren oinarriak.

1.Gaia. Soziologia. Soziologia gizarte zientzien barruan. Helburuak. Behaketa zientifikoa. Ikaste arloak. Planteamendu

teoriko-metodologikoak.

2.Gaia. Kirolaren soziologia. Helburuak. Ikaste arloak eta planteamentu teoriko metodologikoak.

2. Gai multzoa. Kirola eta gizarte egitura.

4.Gaia. Jarduera fisiko eta kirol praktikaren garapena.Kirolarien gizarte profila: demografia, gizarte osaketa. Kirol praktika buruzko ikerketak: Euskal Herrian.

5.Gaia. Kirol praktiken sistema: eskaintza-eskaria. Sistema itxi batetatik sistema ireki baterako joera.

6.Gaia Kirol praktiken gizarte antolaketa.

7.Gaia Kirol gune eta denboraren erabilpen sozialak.

3. Gai multzoa. Kirol soziologiaren aplikazioak.

8.Gaia. Kirola eta indarkeria. Kirolean ematen den indarkeri fenomenoari ematen zaizkion explikazio soziologikoak.Kirol ikuskizunetan ikusle, jarraitzaileen portaerak

9. Gaia. Kirola eta Komunikabideak. Sinergia haundi baten gakoak. Audientziak eta kirol praktika. Kirol ikuskizuna kontsumo produktu bezala.

10.Gaia. Kirola, globalizazioa eta nortasuna.

METODOLOGIA

Irakasleak gai ezberdinak azalduko ditu, kasu batzutan gaiarekin loturik dauden bideo batzuen laguntzarekin. Ikasleak taldeka gaiarekin loturik dauden testuen irakurketa egingo du eta gaiarekin loturik dauden galderei erantzungo die.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	5	10						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5	7,5	15						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaketa:

JARRAIA.

AZTERKETA ETA PRAKTIKAK.

Ikasleak lan praktikoak egingo ditu (notaren % 30a balioko dute) eta Azterketak (%70a).

Ikasleak lan praktikoak egingo ditu eta azterketa.

Biak, gutxienez 5 batekin (bai azterketa eta bai lan praktikoak) gaindituta eduki behar ditu irakasgaia gainditua edukitzeko.

Lan praktika guztiak egin behar ditu, praktikak neurri haundi batean klase orduetan egingo dira.Praktika taldea gehienez bostekoa izango da.Bakarkako lanak ere egingo dira klase saioetan.

FINALA:

AZTERKETA.

Azterketa honek klase teorikoetan eta praktikan egin dena edukiko du oinarri.

Etengabeko ebaluaziori uko egitea:

Etengabeko ebaluazioaren uko egin nahi dioten ikasleek irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko du eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Deialdiari uko egitea:

Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek aurkezteke kalifikazioa jasoko dute.

Ebaluazio eta ikasketen ohiko printzipio etikoak urratzen badira, kalifikazioa 0,0 izango da.(suspentsoa)

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2020-2021 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan (<https://www.ehu.eus/eu/ehu-edonondik/ebaluazioa>).

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- 1.- Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango du ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jarduerak aurkezteko.
- 2.- Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra ezken ebaluazioa izango da.
- 3.- Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikasketaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jardura izango ditu, emaitzak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. IKasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

Deialdiari uko egitea:

- 1.- Deialdiari uko egiten dioten ikasleek aurkezteke kalifikazioa jasoko dute.
- 2.- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Ebaluazio eta ikasketen ohiko printzipio etikoak urratzen badira, kalifikazioa 0,0 izango da (suspentsoa).

Zeharkako G017 gaitasuna:Jardura fisikoaren eta kirolaren arloko literatura zientifikoa ulertzea, bertako hizkuntzetan eta zientziaren eta teknologiaren esparruan erabiltzen diren beste hizkuntza batzuetan. Azterketa idatziaren bitartez ebaluatuko da.

Zekarkako G019 gaitasuna: Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea.Klase praktikoetan landuko da baina ez da ebaluatuko.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2020-2021 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan (<https://www.ehu.eus/eu/ehu-edonondik/ebaluazioa>).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

E-gelaren bitartez errazten den materiala ezinbestekoa izango da klaseen jarraipena egiteko.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Oinarrizko bibliografia:

BARRY D.: The Social Significance of Sport. Human Kinestics Publisher, 1989.

BROHM, JM.: Sociología política del Deporte. F.C.E., 1982

BROHM, JM.: Materiales de sociología del deporte. Edic. La piqueta, Madrid, 1993.

DUNNING,E. El fenómeno deportivo.Estudios sociológicos en torno al deporte, la violencia y la civilización.Editorial Paidotribo, 2003.

DURAN, J.: El vandalismo en en el Fútbol. Una reflexión sobre la violencia en la sociedad moderna. Editorial Gymnos, Madrid, 1996.

ELIAS,N.y DUNNING ,E.:Deporte y Ocio en el proceso de civilización.
Fondo de cultura económica, Mexico, 1992.

GARCIA FERRANDO, M. Aspectos sociales del Deporte. Alianza,Madrid, 1990

GARCIA FERRANDO,M:Encuesta de hábitos deportivos en España.Consejo Superios de Deportes. Madrid,2011,2015.

GARCIA FERRANDO,M:Los españoles y el deporte:prácticas comportamientos en la última década del siglo XX. CSD 2001.

GARCIA FERRANDO. M y otros (comps). Sociología del deporte.
Alianza 2017(4.edic)

GARCIA FERRANDO. M y Llopis Goig, R. La popularización del deporte en España.Encuestas de hábitos deportivos 1980-2015. CIS 2017.

GREENDORFER L.: Learning Experiences in Sociology of Sport
Human Kinetics Books 1991

HEINEMANN, K. Sociología de las organizaciones voluntarias. El ejemplo del club deportivo. Estudios de economía y sociología. Tirant lo blanch . Valencia, 1999.

Kirol Ohiturei buruzko inkesta EAEan. Kirol Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.2009, 2017.

LAGARDERA, F.: Enciclopedia Paidotribo de la actividad física y el deporte. 6 alea. Barcelona:Paidotribo, D.L. 1999.

LÜSCHEN, G.: Sociología del Deporte.Editorial Miñón, Madrid, 1983.

ROGERS y Otros.: Sport and Social Theory.1986.

ROJO, E.: Futbola eta Nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian. Utriusque Vasconiae,Donostia,2014

THOMAS R. y otros.: Sociología del Deporte. Edic. Bellaterra 1988

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Apunts.

Perspectivas.

Internacional Review for the sociology of sport .

Sociology of sport journal

Interneteko helbide interesgarriak

Revista digital Educación Física y Deportes. En: <http://www.efdeportes.com>

Revista Internacional de Ciencias del Deporte. En: <http://www.cafyd.com/REVISTA/ojs/index.php/ricyde>.

Base de datos de ciencias sociales. <http://www.redalyc.com/>

Base de datos: Dialnet. En: <http://dialnet.unirioja.es/>

OHARRAK